# Bestelako Xedapenak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

**4501**

AGINDUA, 2010eko irailaren 7koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, bikaintasun akademikoko beken deialdia egiten duena, 2010-2011 ikasturtean unibertsitatera sartuko diren errendimendu handiko ikasleak aintzatetsi eta saritzeko.

Bikaintasuna da euskal unibertsitate-sistemaren printzipio informatzaileetako bat, hori baita 3/2004 Legeak, otsailaren 25ekoak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, bere 7. artikuluko d) letran arautzen duena. Artikulu horrek dioena aintzat hartuta, unibertsitateak eta botere publikoek hezkuntzaren eta ikerketaren kalitatea eta bikaintasuna bultzatu behar dute, bata zein bestea behar BEZala egokitu daitezen Euskal Autonomia Erkidegoko gizartearen eta herritar guztien interes, sozial, kultural eta ekonomikoetara.

Lege horrek berak, 8., 38. eta 44. artikuluetan, ikasketetarako bekak eta laguntzak arautzen ditu, eta berariaz xedatzen du unibertsitateen gaian eskudun den Eusko Jaurlaritzako sailari dagokiola oinarrizko legediaren garapeneko araudia ematea, ikasketetarako beken, laguntzen eta kredituen alorrean.

Hala eta guztiz ere, dirulaguntzen ildo hori ez da sartzen ikasketetarako bekak eta laguntzak arautzen dituzten xedapen eta prozeduren baitan, aintzat hartzen bada, bederen, abenduaren 21eko 1721/2007 Errege Dekretuak, ikasketetarako beka eta laguntza pertsonalizatuen erregimena ezartzen duenak (2008ko urtarrilaren 17ko BOE, 15. zk.), arautukoa. Aurrez adierazitako legeak zein 1721/2007 Errege Dekretuak agintzen dute, beka eta laguntzak emateko, objektibizatu egin behar direla ikasleen egoera sozioekonomikoak errenta- eta ondare-muga batzuetatik behera, beka eta laguntza horiek emateko arrazoi gisa.

Dirulaguntzen ildo honek ez dio begiratzen 2010-2011 ikasturtean unibertsitatera sartuko diren ikasleen egoera sozioekonomikoari; aitzitik, haien errendimendu akademikoari erreparatzen dio soil-soilik. Ikasleen kalifikazioak bikain-bikainak izan behar dute, eta Sail honek ikasketetarako deitzen dituen gainerako beka eta dirulaguntzetara aurkez daitezkeen ikasleei eskatzen zaizkienak baino kalifikazio askoz ere hobeak izan behar dituzte.

Eskatutako batez besteko nota modu objektiboan zehaztuko da, beka-eskatzaileak Batxilergoan eta unibertsitatera sartzeko probaren fase orokorrean izan duen errendimendua aintzat hartuta. Azaroaren 14ko

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**4501**

ORDEN de 7 de septiembre de 2010, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convocan becas de excelencia académica para reconocer y premiar al alumnado de alto rendimiento que accede a la universidad en el curso académico 2010-2011.

La excelencia es uno de los principios que informan el sistema universitario vasco. Así se recoge en el artículo 7 apartado d) de la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, de donde se infiere que tanto la propia universidad como los poderes públicos deben fomentar la calidad y la excelencia en la enseñanza y en la investigación velando porque éstos se adecuen a los intereses sociales, culturales y económicos de la sociedad vasca y de las personas que habitan en ella.

Esta misma Ley regula en sus artículos 8, 38 y 44 lo relativo a las becas y ayudas al estudio y establece que corresponde al Departamento competente en materia de universidades del Gobierno Vasco el desarrollo normativo del sistema general de becas, ayudas y créditos al estudio establecido en la legislación básica.

Sin embargo, esta línea subvencional se entronca fuera de las disposiciones y procedimientos de regulación de las becas y ayudas al estudio por cuanto, de conformidad con lo establecido en el Real Decreto 1721/2007, de 21 de diciembre, por el que se establece el régimen de las becas y ayudas al estudio personalizadas (BOE n.º 15, de 17 de enero de 2008), ambas figuras jurídicas exigen para su concesión que las circunstancias socioeconómicas de los alumnos se objetivicen por debajo de unos límites de renta y patrimonio que justifiquen su otorgamiento.

En esta línea subvencional no se cuestiona la situación socioeconómica del alumnado que accede a la universidad en el curso académico 2010-2011, sino únicamente su rendimiento académico que deberá estar calificado de excelente y estar muy por encima del exigido al alumnado que puede concurrir o participar en el resto de convocatorias de becas y ayudas al estudio convocadas por este Departamento.

La nota media exigida se determina objetivamente teniendo en cuenta el rendimiento de la persona solicitante de beca tanto en el bachillerato como en la fase general de la prueba de acceso a la universidad.

1892/2008 Errege Dekretuak, graduko unibertsitate-ikasketetarako sarbide-baldintzak eta Espainiako unibertsitate publikoetan onartua izateko prozedurak arautzekoak, 14.1 artikuluan faktore horietarako arautzen dituen haztapen-parametroen arabera baloratuko da errendimendu hori. Gogoan izan behar da maiatzaren 7ko 558/2010 Errege Dekretuak aldatu egin duela 1892/2008 Errege Dekretua, eta haren eranskinak eguneratuak izan direla bi arau hauen bidez: maiatzaren 29ko EDU/1434/2009 Aginduaren bidez, eta, gerora, azken agindu hori aldatuz, otsailaren 11ko EDU/268/2010 Aginduaren bidez.

Jakin badakigu lehen aldia dela bikaintasun akademikoa sustatzeko programa hau deitzen dela eta ikasleek ez dakitela, oro har, zer onuragarria den deialdian parte hartzea; beraz, norgehiagoka-prozeduraren ondoriozko hurrenkera-ordena zehazteko, ez da errendimendua kalkulatzeko formulan sartu unibertsitaterako sarbide-probaren fase espezifikoan lortutako emaitza.

Horrenbestez, aintzat hartuta zer arautzen duten, batetik, 1/1997 Legegintza Dekretuak, azaroaren 11koak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenak, VI. tituluan eta VII. tituluko III. kapituluan –hurrenez hurren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko laguntzen eta dirulaguntzen erregimenari buruzkoa eta Laguntza eta dirulaguntza publikoen arloko arau-hausteen eta zigorren erregimenari buruzkoa–, eta, bestetik, 2/2009 Legeak, abenduaren 23koak, Euskal Autonomia Erkidegoko 2010. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak; eta, betiere, aplikatzekoak diren gainerako xedapenek arautzen dutenarekin bat etorrita, honako hau

XEDATZEN DUT:

***1. artikulua.***– Xedea.

Deialdi honen xedea da 60 beka ematea, «bikaintasun akademikoko bekak» izenekoak, lehen aldiz unibertsitatera 2010-2011 ikasturtean sartuko diren errendimendu handiko ikasleentzat izango direnak; betiere, graduko ikasketetan edo haien baliokide diren ikasketetan matrikulatuta badaude.

Unibertsitate-ikasleek ikasketak eta ikerketa-lanak bikaintasunez egin ditzatela sustatzea da «bikaintasun akademikoko beken helburua», eta, bide batez, haien errendimendu akademikoa saritzea.

***2. artikulua.***– Beken izaera.

Bekek dirulaguntza-izaera dute, eta norgehiagoka-prozeduraren bidez esleituko zaie aurrezarritako baldintzak betetzen dituzten ikasleei, harik eta xede horretarako izendatutako dagoen kreditua, hurrengo artikuluan zehaztua, agortzen den arte.

Este rendimiento está valorado en los parámetros de ponderación que se recogen para estos factores en el artículo 14.1 del Real Decreto 1892/2008, de 14 de noviembre, por el que se regulan las condiciones para el acceso a las enseñanzas universitarias oficiales de grado y los procedimientos de admisión a las universidades públicas españolas, modificado por el Real Decreto 558/2010 de 7 de mayo, y cuyos anexos han sido actualizados por Orden EDU/1434/2009, de 29 de mayo, modificada a su vez por Orden EDU/268/2010, de 11 de febrero.

Por tratarse de la primera convocatoria de este programa de fomento a la excelencia académica y desconocer el alumnado, en general, lo ventajoso de poder participar en la misma, para fijar el orden de prelación en el procedimiento de concurrencia competitiva no se ha incluido en la fórmula el resultado obtenido en la fase específica de la prueba de acceso a la universidad.

Por todo ello, de conformidad con lo establecido en las disposiciones contenidas en los Títulos VI y VII-Capítulo III- del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre (BOPV n.º 11 de 19-01-1998), referentes, respectivamente, al régimen de ayudas y subvenciones de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi y al régimen de infracciones y sanciones en esta misma materia, Ley 2/2009, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2010, y demás disposiciones de general aplicación,

DISPONGO:

***Artículo 1.***– Objeto.

Es objeto de esta convocatoria la concesión de 60 becas denominadas «becas de excelencia académica» destinadas al alumnado de alto rendimiento que accede por primera vez a la universidad en el curso académico 2010-2011 y está matriculado en enseñanzas de Grado o nivel académico equivalentes.

Las «becas de excelencia académica» tienen como finalidad potenciar la excelencia en el estudio y en las tareas de investigación del alumnado universitario, premiando su rendimiento académico.

***Artículo 2.***– Naturaleza de las becas.

Estas becas tienen naturaleza de subvención y su asignación al alumnado universitario que reúna los requisitos exigidos se realizará mediante el procedimiento de concurrencia competitiva hasta agotar el crédito consignado para esta finalidad en el artículo siguiente.

***3. artikulua.***– Baliabide ekonomikoak.

1.– Deialdi honetarako 235.000 euro gorde dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2010erako Aurrekontu Orokorrek, abenduaren 23ko 2/2009 Legearen bidez onartuek, berariaz ezarri duten aurrekontu-sailaren kontura.

2.– Eskatutako laguntzei erreparatuta, aurreko paragrafoan adierazten den zenbatekoa handitzeko aukera izango da; betiere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren beste laguntza-programa batzuk bete ondoren, agortu gabeko aurrekontu-geldikinik baldin bada, eta deialdia ebatzi baino lehen gertatzen bada adierazitako egoera hori. Egoera hori ematen bada, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian egingo da egoera horren publizitatea, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeak emandako ebazpen baten bidez.

***4. artikulua.***– Bikaintasun akademikoko beken modalitateak.

1.– A modalitatea.– Bikaintasun akademikoko bekak, egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten unibertsitateetan graduko ikasketak egiteko: Euskal Herriko Unibertsitatean, Deustuko Unibertsitatean edo Mondragon Unibertsitatean.

2.– B modalitatea.– Bikaintasun akademikoko bekak, Euskal Autonomia Erkidegoan egoitzarik ez duten Espainiako unibertsitateetan nahiz atzerriko unibertsitateetan graduko ikasketak egiteko; betiere, egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten unibertsitateetan aukerarik ez bada ikasketa horiek egiteko.

2.1.– Ildo horretatik, graduko ikasketak edo baliokideak diren ikasketak izango dira A modalitateak adierazten dituen unibertsitateetako unibertsitate-ikastegietan edo unibertsitate horiei atxikitako ikastegietan irakasten ez direnak, baldin eta ikasketa-planeko edukiak edo irakasgaiak % 25ekoa baino alde handiagoa badute egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten unibertsitateetako ikasketa-planaren edo ikasketa-planen eduki eta irakasgaiekiko. Baldintza hori betetzen dela kreditatzeko, Uniqual, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziak emandako txostena igorri beharko da.

2.2.– Atzerriko unibertsitateak izan behar dute Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan (EEES) dauden herrialdeetakoak, Ameriketako Estatu Batuetakoak edo Kanadakoak.

***5. artikulua.***– Beken kopurua, banaketa eta haien zenbatekoa.

1.– Deialdi honetan, bikaintasun akademikoko 60 beka eman ahalko dira, gehienez.

***Artículo 3.***– Recursos económicos.

1.– El importe destinado a esta convocatoria asciende a 235.000 euros, con cargo a la partida presupuestaria establecida al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2010, aprobados por Ley 2/2009, de 23 de diciembre.

2.– El importe a que se refiere el párrafo anterior podrá ser incrementado, teniendo en cuenta las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, y con carácter previo a la resolución de la convocatoria. De producirse esta circunstancia se dará publicidad en el Boletín Oficial del País Vasco mediante Resolución de la Viceconsejera de Administración y Servicios.

***Artículo 4.***– Modalidades de becas de excelencia académica.

1.– Modalidad A.– Becas de excelencia académica para cursar estudios de Grado ofertados en las Universidades con sede social en la Comunidad Autónoma del País Vasco: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Universidad de Deusto / Deustuko Unibertsitatea y Mondragon Unibertsitatea.

2.– Modalidad B.– Becas de excelencia académica para cursar estudios de Grado ofertados tanto en universidades españolas que no tengan su sede social en la Comunidad Autónoma del País Vasco como en universidades extranjeras, siempre y cuando dichos estudios no se impartan en las universidades con sede social en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.1.– A estos efectos se considerará que los estudios de Grado o nivel académico equivalente no se imparten en alguno de los centros universitarios pertenecientes o adscritos a las universidades a que se refiere la modalidad A, cuando los contenidos o materias del plan de estudios difieran en más de un 25% con los contenidos o materias del plan o planes de estudios impartidos en las universidades con sede social en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Este extremo se acreditara mediante informe emitido al respecto por Uniqual, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia - Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco.

2.2.– Las universidades extranjeras deberán ser universidades pertenecientes al grupo de países que conforman el Espacio Europeo de Educación Superior (EEES) o de Estados Unidos de América o Canadá.

***Artículo 5***.– Número, distribución e importe de las becas.

1.– En esta convocatoria se podrán otorgar un máximo de 60 becas de excelencia académica.

2.– Hau izango da beken banaketa eta haien zenbatekoa, modalitatearen eta jakintza zientifikoaren adarraren arabera:

2.1.– A modalitatea: berrogeita hamar beka izango dira, 3.500 eurokoak, eta honela banatuko dira graduko titulazioen jakintza zientifikoko adarraren arabera:

a) Arteak eta humanitateak: 6.

b) Zientziak: 8.

c) Osasun-zientziak: 20.

d) Gizarte-zientziak eta zientzia juridikoak: 2.

e) Ingeniaritza eta arkitektura: 14.

Ez balitz beken kopuru osoa banatuko jakintza-adarren batean, gainerakoen kopurua handitzeko aukera izango da, harik eta 50eko kopururaino iritsi arte, eta, betiere, adarren araberako banaketa-ehunekoei eutsita.

2.2.– B modalitatea: hamar beka izango dira, 6.000 eurokoak, eta modu bereizi gabean banatuko dira, jakintza zientifikoaren adarren artean.

***6. artikulua.***– Bekak emateko prozedura.

1.– Bekak norgehiagoka-prozedura erabiliz emango dira; hau da, bekak eskuratzeko baldintza akademikoen hurrenkera-ordena bat ezarriko da, dagokion modalitateari eta jakintza zientifikoaren adarraren arabera.

2.– Agindu honen 5. artikuluak adierazten dituen modalitateren batean agortu ez den kredituak handitu egin dezake, hura agortu arte, beste modalitate bateko kreditua, baina, betiere, jakintza zientifikoaren adarren araberako banaketa-ehunekoei eutsiz eta eskaeren hurrenkera-ordena errespetatuta.

3.– Agindu honek ezartzen duen erregimen juridikoak arautzen ez dituen alderdiak arautzeko, arau honek xedatzen duena aplikatuko da: 1/1997 Legegintza Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena, eta, bereziki, arau horren VI. titulua eta VII. tituluko III. Kapitulua, hurrenez hurren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko laguntzen eta dirulaguntzen erregimenari buruzkoa eta Laguntza eta dirulaguntza publikoen arloko arau-hausteen eta zigorren erregimenari buruzkoa.

***7. artikulua.***– Beka eskatzen duten ikasleek bete beharreko baldintza orokorrak.

1.– Baldintza hauek bete behar dituzte beka-eskatzaileek:

a) Espainiako naziotasuna izatea edo Espainian legezko bizilekua izatea.

2.– Su distribución e importe, por modalidad y rama de conocimiento científico, es la siguiente:

2.1.– Modalidad A: cincuenta becas de 3.500 euros cada una, distribuidas por rama de conocimiento científico de las titulaciones de Grado conforme se establece a continuación:

a) Artes y Humanidades: 6.

b) Ciencias: 8.

c) Ciencias de la Salud: 20.

d) Ciencias Sociales y Jurídicas: 2.

e) Ingeniería y Arquitectura: 14.

Si no se cubre el número de becas en alguna de las ramas de conocimiento, podrán incrementarse el resto hasta alcanzar la cifra total de 50, manteniendo el porcentaje de distribución por rama.

2.2.– Modalidad B: diez becas de 6.000 euros cada una, a distribuir indistintamente por rama de conocimiento científico.

***Artículo 6.***– Procedimiento para la concesión de las becas.

1.– El procedimiento para la concesión de las becas será por concurrencia competitiva estableciendo un orden de prelación de los requisitos académicos, teniendo en cuenta la modalidad y la rama de conocimiento científico.

2.– El crédito no agotado en alguna de las modalidades a que se refiere el artículo 5, podrá incrementar, hasta su agotamiento, el crédito destinado a la modalidad distinta, manteniendo el porcentaje de distribución por rama de conocimiento científico, y manteniendo siempre el orden de prelación de las solicitudes.

3.– En todo lo no previsto en relación al régimen jurídico de las ayudas reguladas por la presente Orden, será de aplicación lo establecido en el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, en especial sus Títulos VI y VII, Capítulo III, referentes al régimen de las ayudas y subvenciones de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi y al régimen de infracciones y sanciones en materia de ayudas y subvenciones públicas, respectivamente.

***Artículo 7.***– Requisitos generales del alumnado solicitante.

1.– La persona solicitante de beca deberá reunir los siguientes requisitos:

a) Poseer la nacionalidad española o estar en situación de residencia legal en España.

b) Agindu honetako 8.2 artikuluan arautzen den formula aplikatzean, 9 puntuko edo handiagoko nota lortzea.

c) Ez izatea zehapen edo zigor penal edo administratiborik, dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten diona, eta ez izatea legezko debekurik haiek eskuratzeko ezgaitzen duenik.

d) Graduko titulua edo maila akademiko baliokidea duen tituluren bat eskuratzeko ikasketa-plan baten lehen maila oso batean matrikulatuta izatea, hautatzen den modalitatearen arabera.

e) B modalitateko beka jasotzeko eskaera egiten dutenek, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren bateko auzotasun administratiboa izan behar dute, 2009ko abenduaren 31 baino lehenagotik.

2.– Eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete behar dira adierazitako baldintzak, aurreko paragrafoan adierazitako baldintzaren kasuan izan ezik.

***8. artikulua.***– Baldintza akademikoak.

1.– Bikaintasun akademikoko beka eskatzen duten pertsonek 9 puntuko edo handiagoko batez besteko nota izan behar dute, Batxilergoko batez besteko nota eta 2010. urteko unibertsitate-ikasketetarako sarbide-probaren fase orokorraren batez besteko nota aintzat hartuta.

2.– Behin betiko hurrenkera-ordena zehazteko, formula hau aplikatuko zaio eskaera bakoitzari:

BBHO = 0,6* BBBN + 0,4* FOK.

BBHO = Behin betiko hurrenkera-ordena.

BBBN = Batxilergoko batez besteko nota.

FOK = Fase orokorreko batez besteko nota, hiru dezimalekin eta borobildu gabe.

3.– Berdinketarik bada, modalitateari eta jakintza zientifikoaren adarrari erreparatuta, Batxilergoan notarik hoberena lortu duen eskatzailearen aldeko proposamena egingo du Batzordeak. Berdinketak bere horretan badirau, irizpide hauek aplikatu behar dira proposamena egiteko: otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 3.4 eta 18.1 artikuluetan arautzen dituen irizpideak.

4.– Eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete behar dira adierazitako baldintzak.

***9. artikulua.***– Eskaerak aurkezteko modua.

1.– Eskaerak aurkezteko epea Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean hasiko da, eta 2010eko azaroaren 2an amaituko, bi egun horiek barne hartuta.

b) Haber obtenido una nota igual o superior a 9 puntos en aplicación de la fórmula establecida en artículo 8.2 de la presente Orden.

c) No hallarse sancionado o sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas ni hallarse incurso o incursa en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello.

d) Estar matriculado o matriculada del primer curso completo de un plan de estudios de enseñanzas conducentes a una titulación de Grado o nivel académico equivalente en función de la modalidad a la que se opta.

e) En el caso de los solicitantes que optan a la Modalidad B, tener la vecindad administrativa en algún municipio de la Comunidad Autónoma del País Vasco con anterioridad al 31 de diciembre de 2009.

2.– Los requisitos señalados deberán reunirse en la fecha en que expire el plazo de presentación de solicitudes, salvo el recogido en el párrafo anterior.

***Artículo 8.***– Requisitos académicos.

1.– La persona solicitante de beca de excelencia académica deberá haber obtenido una nota media igual o superior a 9 puntos teniendo en cuenta la nota media del Bachillerato y la nota media de los exámenes correspondientes a la fase general de la prueba de acceso a las enseñanzas universitarias (PAU) del año 2010.

2.– El orden de prelación definitivo se fijará aplicando a cada solicitud la siguiente fórmula:

OPD= 0,6* NMB + 0,4* CFG.

OPD= Orden de prelación definitivo.

NMB= Nota media del bachillerato.

CFG= Nota media de la fase general, con tres decimales y sin redondeo.

3.– En caso de empate, según modalidad y rama de conocimiento científico, en su caso, la Comisión elevará propuesta a favor de quien haya obtenido mejor nota media del Bachillerato. De persistir el empate la propuesta deberá aplicar los criterios dispuestos en los artículos 3.4 y 18.1 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

4.– Los requisitos señalados deberán reunirse en la fecha en que expire el plazo de presentación de solicitudes.

***Artículo 9.***– Presentación de las solicitudes.

1.– El plazo de presentación de solicitudes será el comprendido entre el día siguiente al de la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco y el 2 de noviembre de 2010, inclusive.

2.– Agindu honen I. eranskinean ageri den eskaera-eredua bete behar dute bikaintasun akademikoko beken eskatzaileek. Eredu hori web-helbide honetan aurki daiteke: web www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net. Eskaerak modalitate bakarrerako egin behar dira.

3.– Eskaerak Unibertsitateetako zuzendariari zuzendu behar zaizkio, behar BEZala beteta, eguna adierazita, izenpetuta eta jarraian zerrendatuko diren agiriekin batera. Ezarritako epean aurkeztu behar dira eskaerak, Unibertsitate Zuzendaritzan: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz. Eskaerak aurkezteko lekuak izango dira, halaber, 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 38. artikuluan adierazten dituen tokiak eta 72/2008 Dekretuak, apirilaren 29koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoak, zehaztutako erregistroak.

4.– Eskaerarekin batera, jarraian adierazten diren agiriak aurkeztu behar ditu eskatzaileak, ale originalak nahiz kopiak izan daitezkeelarik. Kopiak izatekotan, behar BEZala kautotuak, konpultsatuak edo erkatuak izan behar dute.

a) Nortasun Agiri Nazionala, pasaportea edo eskatzaileak Espainian legezko bizilekua duela kreditatzen duen txartela.

b) Batxilergoan ateratako batez besteko nota kreditatzen duen agiria, ikasketa horiek egin dituen ikastetxeak emandakoa, eta ikastetxearen kodea adieraziz.

c) Unibertsitaterako sarbide-probaren fase orokorrean ateratako batez besteko nota kreditatzen duen agiria, hiru dezimalekin eta borobildu gabe.

d) Banketxearen agiria, adierazten duena kontu korronte baten edo aurrezki libretan baten zenbakia, bikaintasun akademikoko bekaren ordainketa egiteko. Beka eskatzen duen ikasleak kontu korronte edo aurrezki libreta horren titularra edo titular-kidea izan behar du.

e) Graduko titulua edo maila akademiko baliokidea duen tituluren bat eskuratzeko ikasketa-plan baten lehen maila oso batean matrikulatuta dagoela kreditatzen duen agiria, eskuratu nahi den beka-modalitatearen arabera.

f) B modalitateko beka jasotzeko eskaera egiten dutenek, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren bateko auzotasun administratiboa dutela kreditatzen duen agiria aurkeztu behar dute. Auzotasun hori 2009ko abenduaren 31 baino lehenagotik izan behar dute.

***10. artikulua.***– Tramitazioa eta prozedura.

1.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Unibertsitate Zuzendaritza izango da eskaeren tramitazioa kudeatuko duen organoa.

2.– La persona solicitante de beca de excelencia académica deberá cumplimentar el modelo de solicitud recogido en el anexo I de la presente Orden, que figura en la dirección web www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net. Dicha solicitud deberá ser por una única modalidad.

3.– La solicitud, una vez cumplimentada y debidamente fechada, firmada y acompañada de los documentos enumerados a continuación, se deberá dirigir a la Directora de Universidades. Las solicitudes se presentarán en el plazo establecido en la Dirección de Universidades, calle Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, y podrán presentarse también en cualquiera de las dependencias a que se refiere el artículo 38 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común o en cualquiera de los registros especificados en el Decreto 72/2008, de 29 de abril, de creación, organización y funcionamiento de los registros de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos.

4.– Junto con la solicitud la persona solicitante deberá presentar la documentación que se establece a continuación, debiendo ser original o copia que deberá estar autenticada, compulsada o cotejada.

a) DNI, pasaporte o tarjeta de residencia legal en España.

b) Documento acreditativo de la nota media obtenida en el Bachillerato, expedida por el centro en el que se han cursado, con el código del centro.

c) Documento acreditativo de la nota media obtenida en la fase general de la prueba de acceso a la universidad (PAU) con tres decimales y sin redondeo.

d) Documento de la entidad bancaria donde se haga constar el número de cuenta corriente o libreta de ahorro en la que, en su caso, deba hacerse efectivo el pago de la beca de excelencia académica, debiendo figurar como titular o cotitular de aquellas el alumno o alumna solicitante de la beca.

e) Documento acreditativo de que se encuentra matriculada del primer curso completo de un plan de estudios de enseñanzas conducentes a una titulación de Grado o nivel académico equivalente en función de la modalidad a la que se opte.

f) En el caso de los solicitantes que opten a la Modalidad B, certificado de vecindad administrativa o empadronamiento en algún municipio de la Comunidad Autónoma del País Vasco con anterioridad al 31 de diciembre de 2009.

***Artículo 10.***– Tramitación y procedimiento.

1.– El órgano gestor para la tramitación de solicitudes será la Dirección de Universidades del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

2.– Eskaeraren batek ez baditu betetzen baldintza guztiak, interesatuari akats horiek zuzentzeko epe bat emango zaio, hamar egunekoa, 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 71.1 artikuluan arautzen duenarekin bat etorriz.

3.– Deialdiak agintzen dituen baldintzak betetzen dituzten eskaerak ordenatu egingo dira, hurrenkera-ordenaren, modalitatearen eta jakintza-adarraren arabera.

4.– Hautaketa-batzorde bat eratuko da espedienteak aztertu eta haiei buruzko ebazpen-proposamena egiteko. Unibertsitateetako zuzendaria izango da batzorde horretako burua, eta hiru kide tekniko izango ditu, Unibertsitate Zuzendaritzara atxikiak. Unibertsitateetako zuzendariak izendatuko ditu hiru kide horiek.

Batzorde horrek esleipen-proposamen bat egingo du, eta Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari bidaliko zaio. Azken horrek, proposamena ikusi ondoren, ebazpena emango du, hamar eguneko epean.

Proposamenak berariaz adierazi behar du, izenez adierazita, hurrenkera-ordenan eta modalitatearen nahiz parte hartzen den jakintza-adarraren arabera, bikaintasun akademikoko beken onuradunak izateko moduan dauden eskatzaileen zerrenda, eskatzaile horiek deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzten neurrian eta laguntza jasotzeko aukera ematen dien ordena-zenbaki bat lortu duten heinean.

